

## Axular Lizeoa, Orokieta Herri Eskola, Elgoibar Ikastola, Hernani BHI eta La Salle Berrozpe, Kosmodisea 2011-2012 Ikono Planetan puntu gehien lortu dituzten ikastetxeak

Axular Lizeoa, Orokieta Herri Eskola, Elgoibar Ikastola, IES Hernani eta La Salle Berrozpe ikastetxeetako taldeek lortu dute Kosmodisea 2011-2012ko Ikono Planetan puntu gehien.

[Ikusi Axular Lizeoaren lana](#)

[Ikusi Orokieta Herri Eskolaren lana](#)

[Ikusi Elgoibar Ikastolaren lana](#)

[Ikusi Hernani BHIren lana](#)

[Ikusi La Salle Berrozperen lana](#)

[Aitor Uriondori elkarrizketa. Axular Lizeoa](#)

[Jokin Izarri elkarrizketa. Orokieta Herri Eskola](#)

[Itziar Ondarrari elkarrizketa. Elgoibar Ikastola](#)

[Amaia Urzelairi elkarrizketa. Hernani BHI](#)

[Josune Muruari elkarrizketa. La Salle Berrozpe](#)

Kosmodisea [Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza](#), [Landa Garapena eta Turismo Sailaren](#) ekimena da, eta finantzazioaren % 50 [Europako Gizarte Funtzaren](#) da ("Europako Gizarte Funtzak zure etorkizunean inbertitzen du"). Ekimenak Gipuzkoan unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-alorreko ekintzailak sustatu nahi du, talde-lanaren bitartez eta IKTen (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien) erabilera trinko eta aurreratuaren bitartez.

Zehazki, Axular Lizeoko ordezkariak ([ikusi elkarrizketa](#)) izan dira Lehen Hezkuntza 1 (1, 2 eta 3. mailak) kategoriako irabazleak; Orokieta Herri Eskolak ([ikusi elkarrizketa](#)) irabazi du Lehen Hezkuntza 2 (4, 5 eta 6. mailak) kategoriari dagokion saria, eta Elgoibar Ikastola ([ikusi elkarrizketa](#)) izan da DBH mailan irabazlea. Bestalde, Hernani BHIk ([ikusi elkarrizketa](#)) lortu du Batxilergo kategoriako saria eta Andoingo La Salle Berrozpe ikastetxea ([ikusi elkarrizketa](#)) izan da Zikloak kategoriako lehen postua lortu duena.



"Ideia-jasari" zegokion fasearen amaieran erabaki zen moduan, Kosmodisea 2011-2012 lehiaketan parte hartzeko lanak gai askori buruzkoak izan daitezke. Zehazki, ikasturte honetan Kosmodiseako parte-hartzearen oinarri diren gai nagusiak honako hauek dira: planetak bizi duen ingurumenaren narriadura salatzeari; dirurik gabeko mundua irudikatzea; berrerabilitako materialez egindako eskulturez beteriko museo ekologikoa irudikatzea, edo bere kasa kargatzeko gai den ordenagailuko sagua diseinatzea.

"Ikono Planeta" honetan, taldeek beren proiektuaren beharra eta aukera defendatu dute soinu lagundutako argazki-muntaia baten bidez. Fase horren ostean,



"Grapho" fasea etorriko da. Maila horretan, aurtengo Kosmodisea edizioaren berrikuntza gisa, proiektuaren plangintza egin, garatu eta gauzatu egingo da. Izan ere, hori izango da fase honetako ebaluaziorako erabiliko den lana.

Kosmodisea 2011-2012 edizioan parte hartzeko izena emateko epea seigarren edizioaren bukaerara arte egongo da zabalik.

[Ikusi Axular Lizeoaren lana](#)

[Ikusi Orokieta Herri Eskolaren lana](#)

[Ikusi Elgoibar Ikastolaren lana](#)

[Ikusi Hernani BHIren lana](#)

[Ikusi La Salle Berrozperen lana](#)

Web Kosmodisea

[www.kosmodisea.net](http://www.kosmodisea.net)

[info@kosmodisea.net](mailto:info@kosmodisea.net)

Tfno.: 900 840 842

